

ESPEZIALITATEAK ZABALIK BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOAN, MAISU-MAISTREN KIDEGOAN ETA LANBIDE HEZIKETAKO SEKTORE BEREZITAKO IRAKASLE ESPEZIALISTEN KIDEGOAN

Eskabideak aurkezteko epea: 2023ko abenduaren 20tik 27ra

326/2023 EBAZPENA, abenduaren 19koa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana

GAZTELANIAZ irakatsi beharreko espezialitateak

590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

- Marrazketa, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Fisika eta kimika, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Ostalaritza eta turismoa, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Informatika
- Instalazio elektroteknikoak
- Fabrikazio mekanikoaren antolaketa eta proiektuak
- Osasun- eta laguntza-prozedurak, osasun-profilarekin
- Sistema eta aplikazio informatikoak
- Teknologia, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin

590 - Maisu-maistren kidegoa:

- Entzumena eta hizkuntza, zeinu-hizkuntzaren 3. mailako eskakizunarekin
- Haur-hezkuntza, frantsesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Musika, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Lehen hezkuntza, frantsesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin

598 - Lanbide Heziketako sektoreetako irakasle espezialisten kidegoa

- Soldadura

EUSKARAZ irakatsi beharreko espezialitateak (betekizuna: EGA edo baliokidea)

590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

- Biologia eta geologia
- Marrazketa
- Gorputz-hezkuntza
- Gorputz-hezkuntza, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Filosofia
- Fisika eta kimika
- Frantsesa
- Geografia eta historia
- Ingelesa
- Gaztelania eta literatura
- Matematika
- Musika
- Osasun-prozesuak
- Sistema elektrotekniko eta automatikoak
- Teknologia

590 - Maisu-maistren kidegoa:

- Entzumena eta hizkuntza, hezkuntza bereziko profilarekin
- Euskara (Nafarroa), ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Musika

Eskabideak eta agiriak **modu telematikoan bakarrik** aurkeztu behar dira, honako webgune honetan, **TRAMITAZIOA ataleko "Tramitatu"** botoia sakatuta:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Apertura-de-listas-especificas-mediante-incorporacion-periodica-de-aspirantes-en-determinadas-especialidades-e-idiomas-1>

Hor azaltzen diren urratsak bete behar dira, eta agiri hauek **SOILIK** erantsi:

- **Indarrean dagoen NANaren** edo nortasun-agiri baliokidearen kopia eskaneatua, bi aldeetatik egina eta dokumentu bakar batean aurkeztua
- Espezialitaterako **eskatzen den** indarreko **tituluaren** kopia eskaneatua, bi aldeena, eta dokumentu bakar batean aurkeztua. Fitxategi bakarra aurkeztu beharko da titulu bakoitzeko, hala xedatzen baita Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 1. puntuan
- Zerrendan sartzeko betebeharrak modura alegatu den tituluaren indarreko **expediente akademiko** ofizial osoa, ziklo guztiei dagokiena, zeinetan agertuko baita batez besteko nota, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- Euskaraz irakatsi beharreko espezialitateetarako: **EGA** titulu edo baliokide indardunaren kopia eskaneatua, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- **Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko** masterra edo baliokidea, indarra duena, dokumentu bakar batean aurkeztua, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 2. puntuan xedatutakoarekin bat.

Gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak edo beste autonomia-erkidego bateko hizkuntza ofizial berekian idatzitakoak. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek, eta agiriarekin batera aurkeztu beharko dira.